«Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana – Europar Batasunak Finantzatua – Next Generation EU»

«Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia - Financiado por la Unión Europea – NextGenerationEU»

AM25_047.1_EUS_ES

Expediente: 2025OASI0002

PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA, USABAL KIROLDEGIKO INSTALAZIO TERMIKO ETA ELEKTRIKOAK BERRITZEKO OBRA-KONTRATUA ARAUTUKO DUENA

1. AURREKARIAK

4/2019 LEGEAk, otsailaren 21ekoak, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoak, ezartzen duen neurrien artean eraikinen publikoen auditoretza energetikoa egitea dago. Era berean, lege horrek eskatzen du administrazio publiko bakoitzak 2030erako lortu beharra daukala bere eraikin guztietan energia berriztagarriez baliatzeko instalazioak edukitzea, administrazio horren kontsumoaren % 32 zuzkitzeko adinakoak.

Helburu honekin, 2024ean Nasei Ingenieria S.A. enpresak Usabal kiroldegiaren auditoretza energetikoa egin zuen. Auditoretza horren ondorioetako bat izan zen, eraikinaren galdara nagusiak berritzeko beharra zuela eta, iturri berriztagarrien ehunekoa betetze aldera, biomasa eta aerotermia uztartzeko proposamena egin zuen.

Usabal kiroldegia, udal administrazioren kontsumo energetikoaren zati garrantzitsuena izanik, eta eraikin honen galdara printzipalaren egoera kaxkarra denez, galdara zaharra biomasa eta aerotermia uztartzen dituen sistema batengatik ordezkatuko da.

Era berean, igerilekuen aire tratamendua egiten duten makinak ere hondatuta daudenez, bero ponpen hotz-sorkuntza aprobetxatzen duten klimatizazio sistema berriak jarriko dira.

Amaitzeko, 2022 urtetik zerbitzuz dagoen kogenerazio sistemak eman beharko lukeen argindar hornidura osagarria berrezartzeko, eta, bide batez, kiroldegian dagoen jatetxearen argindar hornidura kiroldegiko kontsumotik banatzeko, banaketa sarean transformazio zentro berri bat eraikiko da, argindar hornidurak behe tentsioa emateko.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES QUE HA DE REGIR EL CONTRATO DE OBRA PARA LA RENOVACION DE INSTALACIONES TERMICAS Y ELECTRICAS DEL POLIDEPORTIVO USABAL

1. ANTECEDENTES

Entre las medidas que establece la LEY 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma del País Vasco, se encuentra la realización de la auditoría energética de los edificios públicos. Asimismo, esta ley exige que cada Administración Pública tenga que conseguir para el año 2030 unas instalaciones de energías renovables en todos sus edificios que cubran el 32% de su consumo.

Con este objetivo, en 2024 la empresa Nasei Ingeniería S.A. realizó la auditoría energética del polideportivo Usabal. Una de las conclusiones de esta auditoría fue la necesidad de renovar la caldera principal del edificio y, con el objetivo de cumplir el porcentaje de fuentes renovables, planteó una combinación de biomasa y aerotermia.

El polideportivo Usabal, siendo la parte más importante del consumo energético de la administración municipal, y debido al mal estado de la caldera principal de este edificio, se opta por sustituir la antigua caldera por un sistema que combina biomasa y aerotermia.

Asimismo, las máquinas de tratamiento de aire de las piscinas también están deterioradas, por lo que se instalarán nuevos sistemas de climatización que aprovechen la generación de frío de las bombas de calor.

Por último, para restablecer el suministro complementario de energía eléctrica que hasta ahora aportaba el sistema de cogeneración, fuera de servicio desde el año 2022, y de paso, para separar el suministro eléctrico del restaurante situado en el polideportivo del consumo del polideportivo, se construirá un nuevo centro de transformación en la red de distribución, para poder acceder a suministros eléctricos en baja tensión.

ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba37823f1

2. KONTRATUAREN XEDEA

Plegu honen arabera egiten den obra kontratuaren xedea da Usabal kiroldegiko instalazio termiko eta elektrikoak berritzea, biomasa eta aerotermia uztartzen dituen sistema batekin, igerilekuentzako klimatizazio ekipo berriekin eta banaketa sareko transformazio zentro berri batekin.

Jarduketa honekin jarraipena ematen zaio eraikinen energia-efizientziako hobetzeko politikari eta energia berriztagarrien zabalkundeari, instalazio horiek egokituz 4/2019 Legeak agindutakora, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa. Horren guztiaren ondorioa da sorkuntza termikorako sistemen teknologia gaurkotzea, energia kontsumoa murriztea, eguratsera CO2 gutxiago isurtzea eta mantentze-lanen kostuak txikiagoak izatea.

2. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato de obra que se realiza conforme a este pliego tiene por objeto la renovación de las instalaciones térmicas y eléctricas del polideportivo Usabal, con un sistema que combina biomasa y aerotermia, nuevos equipos de climatización para piscinas y un nuevo centro de transformación en la red de distribución.

Con esta actuación se da continuidad a la política de mejora de la eficiencia energética de los edificios y al aumento de las energías renovables, adaptando dichas instalaciones a lo dispuesto en la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma del País Vasco. El resultado es actualizar la tecnología de los sistemas de generación térmica, reducir el consumo de energía, reducir las emisiones de CO2 a la atmósfera y reducir los costes de mantenimiento.

ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba377823f1

3. KONTUAN HARTU BEHARREKO HIRIGINTZA- ETA ERAIKUNTZA-ARAUDIA

- 4/2019 LEGEA, otsailaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
- 1027/2007 Errege Dekretua, uztailaren 20koa, Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (EITE), haren jarraibide tekniko osagarriak (ITE) eta horiei lotutako UNE arauak onartzen dituena. Uztailaren 20ko 1027/2007 EDko akatsen ZUZENKETA.RD 1826/2009 de 27 de noviembre por el que se modifica el RITE aprobado por RD 1027/2007 de 20 de Julio.
- 238/2013 Errege Dekretua, apirilaren 5ekoa, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren zenbait artikulu eta jarraibide tekniko aldatzen dituena. Akats zuzenketa, apirilaren 5eko 238/2013 Errege Dekretuarena, uztailaren 20ko 1027/2007 Errege Dekretuaren bidez onartutako Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamenduaren zenbait artikulu eta jarraibide tekniko aldatzen dituena.
- Eraikuntzaren Kode Teknikoa, 314/2006 Errege Dekretuaren bidez bere artikuluetan onartua: a) Energia aurrezteko oinarrizko eszisioak (HE) b) Sute-antzerako oinarrizko segurtasun-eskakizunak (SI)
- 2060/2008 Errege Dekretua, abenduaren 12koa, presio-ekipoen Erregelamendua eta haren jarraibide tekniko osagarriak onartzen dituena (2009/02/05eko BOE).
- 865/2003 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, legionelosiaren prebentziorako eta kontrolerako irizpide higieniko-sanitarioak ezartzen dituena (2003/07/18ko BOE).
- Behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoa (BTEE) eta haren jarraibide tekniko osagarriak. ITC BT. Abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua. (2002/09/18ko 224. BOE).
- Tximiniak, kalkulua eta diseinua. UNE 123.001/94.

3. NORMATIVA URBANÍSTICA Y EDIFICATORIA A TENER EN CUENTA

- LEY 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energética de la Comunidad Autónoma Vasca.
- Real Decreto 1027/2007, de 20 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios (RITE), sus instrucciones técnicas complementarias (ITE) y sus normas UNE asociadas. corrección de errores del RD 1027/2007, de 20 de julio. RD 1826/2009 de 27 de noviembre por el que se modifica el aprobado por RD 1027/2007 de 20 de julio.
- Real Decreto 238/2013, de 5 de abril, por el que se modifican determinados artículos e instrucciones técnicas del RITE, aprobado por Real Decreto 1027/2007, de 20 de julio. Corrección de errores del Real Decreto 238/2013, de 5 de abril, por el que se modifican determinados artículos e instrucciones técnicas del Reglamento de Instalaciones Térmicas en los Edificios, aprobado por Real Decreto 1027/2007, de 20 de julio.
- Código Técnico de la Edificación, aprobado en su articulado por el Real Decreto 314/2006: a) Escisión básica de ahorro energético (HE) b) Exigencias básicas de seguridad en caso de incendio (SI)
- Real Decreto 2060/2008, de 12 de diciembre, por el que se aprueba el Reglamento de equipos a presión y sus instrucciones técnicas complementarias (BOE 05/02/2009).
- Real Decreto 865/2003, de 4 de julio, por el que se establecen los criterios higiénico-sanitarios para la prevención y control de la legionelosis (BOE 18/07/2003).
- Reglamento electrotécnico de baja tensión (REBT) y sus instrucciones técnicas complementarias. ITC BT. Real Decreto 842/2002, de 2 de agosto. (224 de 18/09/2002. BOE).
- Chimeneas, cálculo y diseño. UNE 123.001/94.

ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba37823f1

4. GAUR EGUNGO INSTALAZIOEN EGOERA

BERO SORKUNTZA: Ur beroa sortzeko gasezko 2 galdara dauzka kiroldegiak, 575kW eta 1400kW potentziakoak. Gasezko galdara handiak azken urteetan mantentze lan handiak behar izan ditu eta egoera oso txarrean dago, etorkizunean zerbitzuz kanpo geratzeko arriskuan dago. Bi galdara horiez gai, gasezko kogeneraziorako motor bat ere badago, elektrizitatea sortzearekin batera beroa ere sortzen duena.

HOTZ SORKUNTZA: Klimatizazioko ekipoek erabiltzen duten ur hotza ekoizteko 500kW potentziako makina hozkailu bat dago. Makinaren konpresore erdiak hondatuta daude, beraz, potentzia erdia emateko gaitasuna bakarrik dauka.

IGERILEKUEN HEZETASUN ERAUZGAILUAK: Igerilekuen airearen tenperatura eta hezetasuna kontrolatzeko 3 hezetasun erauzgailu daude, bero ponpa bidezkoak. Gaur egun, makina horiek airea hozteko dituzten konpresore gehienak hondatuta edo egoera txarrean daude, eta ez dute igerilekuko airearen hezetasuna araudiaren eskatzen duen bezala kontrolatzea lortzen.

ARGINDAR HORNIDURA OSAGARRIA: Kiroldegiak gasezko kogenerazio makina bat dauka, energia elektrikoa sortzearekin batera beroa sortzen duena. Makina honekin energia elektrikoaren hornidura osagarria bermatzen da, argindar hornidura printzipala galduz gero martxan jartzen dena. 2022 urteaz geroztik kogenerazio sistema itzalita egon da, gasaren prezioaren igoera dela eta; gaur egun kogenerazioko motorra hondatuta eta zerbitzuz kanpo dago, eta, ondorioz, kiroldegiak ez du energia elektrikoaren hornidura osagarririk.

4. ESTADO ACTUAL DE LAS INSTALACIONES

GENERACIÓN DE CALOR: El polideportivo dispone de 2 calderas de gas para la generación de agua caliente, de 575 kW y 1400kW. La gran caldera de gas, que en los últimos años ha necesitado un gran mantenimiento, se encuentra en muy mal estado y en riesgo de quedar fuera de servicio en el futuro. A estas dos calderas se puede añadir un motor de cogeneración de gas que genera calor con la generación de electricidad.

GENERACIÓN DE FRÍO: El polideportivo dispone de un equipo frigorífico de 500kW de potencia para producir el agua fría que utilizan los equipos de climatización. La mitad de los compresores de la máquina están dañados, por lo que solo tiene la capacidad de dar media potencia.

DESHUMECTADORES DE LAS PISCINAS: Existen 3 deshumectadoras para controlar la temperatura y humedad del aire de las piscinas, mediante bomba de calor. En la actualidad, la mayoría de los compresores que tienen estas máquinas para enfriar el aire están dañados o en mal estado y no consiguen controlar la humedad del aire de la piscina tal y según normativa.

SUMINISTRO ELÉCTRICO COMPLEMENTARIO: El polideportivo cuenta con una cogeneración de gas que genera calor con la generación de energía eléctrica. Con esta máquina se cubre el suministro complementario de energía eléctrica que se pone en marcha en caso de pérdida del suministro principal. Desde el año 2022 la cogeneración ha estado apagado debido al aumento del precio del gas; en la actualidad, el motor está deteriorado y fuera de servicio, por lo que el polideportivo no dispone de suministro complementario de energía eléctrica.

ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba37823f1

5. ERAIKI BEHARREKO INSTALAZIOEN EZAUGARRIAK. OSAERA- ETA IRIZPIDEAK

OBRAk 3 zati nagusi dauzka: sorkuntza termikorako instalazioak, igerilekuentzako klimatizazio sistema eta AT/BT instalazio elektrikoak. Obra ziurtagiriak eta gastuen likidazioa modu banatuan egingo da, zati bakoitzarentzat.

Proiektuan definituta dauden elementuen marken ezberdinak eskaini ahalko dira, teknikoki baliokideak edo hobeak direla justifikatuta.

Obra hau Next Generation diru laguntzekin finantziatzeko asmoa dago, beraz, lanen exekuzioak diru laguntzen oinarrietan definitzen diren irizpide guztiak bete beharko ditu.

"*Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren ekonomiaren hainbat sektoretan energia berriztagarri termikoen instalazioak ezartzeko pizgarri-programaren barruan zeina Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) kudeatzen duen, Europar Batasunak finantzatutako Berreskuratze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan - Next Generation EU"*

5.1. Sorkuntza Termikoa

Sorkuntza termikorako 2 teknologia berriztagarri uztartzen dituen sistema bat eraikiko da:

Ur beroa tenperatura baxuan (40-50ºC) sortzeko 420kW potentzia termikoko 2 bero-ponpa polibalente, aerotermiazkoak, jarriko dira. Bero-ponpak kiroldegi iparraldeko eremu batean kokatuko dira, gaur egungo bero instalazioen ondoan, lursail batean.

Ur beroa tenperatura altuan (70-80ºC) sortzeko 540kW potentziako 2 biomasazko galdara jarriko dira, pelleta edo ezpalarekin funtzionatuko dutenak. Biomasazko galdara-gela eta erregai biltegi berriak kiroldegi hegoaldeko eremu batean eraikiko dira, eraikuntza berri batean, eta gaur egungo bero zirkuituetara lotuko dira hoditeria bitartez.

Tenperatura maila ezberdinetan jardungo duen sistema honen efizientzia eta kontrolagarritasuna hobetzeko asmoarekin, estratifikazio sistema bat jarriko da, 2 deposituz osatuta.

5. CARACTERÍSTICAS DE LA INSTALACION A PROYECTAR. COMPOSICIÓN Y CRITERIOS

La OBRA consta de 3 partes principales: instalaciones de generación térmica, sistema de climatización para piscinas e instalaciones eléctricas AT/BT. Los certificados de obra y las liquidaciones se efectuarán de forma separada para cada una de las partes.

Se podrán ofertar distintas marcas de los elementos definidos en el proyecto, justificando su equivalencia técnica o su mejora.

Esta obra está prevista financiarla con subvenciones de Next Generation, por lo que las obras deberán cumplir todos los criterios definidos en las bases de las ayudas para su ejecución.

"*en el marco del Programa de incentivos para la implantación de instalaciones de energías renovables térmicas en diferentes sectores de la economía del Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico gestionado por el Ente Vasco de la Energía (EVE), enmarcado en el Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia financiado por la Unión Europea–Next Generation EU"*

5.1. Generación Térmica

Se construirá un sistema que combina 2 tecnologías renovables para la generación térmica:

Papa la producción de agua caliente a baja temperatura (40-50ºC) se dispondrán 2 bombas de calor polivalentes de potencia térmica 420kW de aerotermia. Las bombas de calor se ubicarán en una zona norte del polideportivo, junto a las instalaciones de calor actuales, en una parcela.

Para la producción de agua a alta temperatura (70-80°C) se colocarán 2 calderas de biomasa de 540 kW de potencia, que funcionarán con pellet o astilla. La sala de calderas y los nuevos silos de combustible se construirán en una nueva edificación en la zona sur del polideportivo y se conectarán mediante tuberías a los circuitos de calor actuales.

Con el objetivo de mejorar la eficiencia y la controlabilidad de este sistema, que funcionará a diferentes niveles de temperatura, se implantará un sistema de estratificación compuesto por 2 depósitos.

ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba37823f1

5.2. Termikoak

Hotz sorkuntzari dagokionez, egoera txarrean dagoen hotz makina kenduko da eta bero-ponpa polibalenteak aprobetxatuko dira ur-beroa sortzeko prozesuan sortzen duten hotzarekin gaur egun ur-hotz instalazioak hornitzeko. Era berean, bero-ponpa berriek soberan sortuko duten hotza aprobetxatzeko, gaur egun bero-ponpa integratua duten igerilekuetako 3 hezetasun-erauzgailuak kenduko dira eta ur-hotz eta -beroarekin funtzionatzen duten klimatizazio sistema integral berriak jarriko dira, argindar kontsumoa murriztuz eta sistema osoaren errendimendua hobetuz.

5.3. AT/BT instalazio elektrikoak

Argindar hornidura osagarria berrezartzeko, hondatutako kogenerazio sistema kenduko da eta hornidura behe-tentsioan izateko transformazio zentro berri bat eraikiko da kiroldegi kanpoaldean, beheko solairura sartzen den arrapalaren ondoan. Transformazio zentro berria egingo denez, kiroldegiko jatetxearen argindar hornidura kiroldegitik banatzeko aprobetxatuko da, baita kaleko argiteria hornidura berri bat eraikitzeko.

5.2. Térmica

En cuanto a la generación de frío, se eliminará la máquina de frío en mal estado y se aprovecharán las bombas de calor polivalentes para abastecer a las instalaciones de agua fría actuales con el frío que generan en el proceso de producción de agua caliente. Asimismo, aprovechando el frío sobrante de las nuevas bombas de calor, se eliminarán las 3 deshumectadoras de las piscinas que actualmente cuentan con bomba de calor integrada y se implantarán nuevos sistemas integrales de climatización que funcionen con agua fría y caliente, reduciendo el consumo de electricidad y mejorando el rendimiento del sistema en su conjunto.

5.3. Instalaciones eléctricas AT/BT

Para restaurar el suministro complementario de energía eléctrica, se eliminará el sistema de cogeneración deteriorado y se construirá un nuevo centro de transformación en el exterior del polideportivo, junto a la rampa de acceso a la planta baja, para disponer de posibilidad de suministro eléctrico en baja tensión. Con la necesidad de construir un nuevo centro de transformación, se aprovecharás para separar el suministro eléctrico del restaurante de las instalaciones eléctricas del polideportivo, así como para la construcción de un nuevo suministro de alumbrado público.

ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba377823f1

6. KONTRATUREN BALDINTZA GEHIGARRIAK

Aurrekontuan aipatutakoaz bestelako kosturik gabe, ezinbestekoa izango da zeregin osagarri hauek egitea:

6.1. LANEN PROGRAMAZIOA

Esleipendunak programazio bat aurkeztu beharko du, esku-hartzea hasi aurretik. Programazio horretan, nahitaez, hainbat fase bereizi beharko da, fase bakoitzerako epeak aurreikusita. Faseen iraupenaz gain, fase horiek plangintzan zehar zein data zehatzekin lotzen diren zehaztu beharko da. Obrako lanek Tolargi SL enpresari eragingo diotenez, inguru horretan egin beharreko lanen koordinazioa aurretik haiekin adostu beharko da. Programazio horrek udal zerbitzu teknikoen oniritzia jaso beharko du lanak hasi aurretik.

Programazio honen helburua da lan hauek herritarrei zerbitzua emateko orduan eta udal-jarduerak burutzeko orduan sortuko dituen eragozpenak gutxitzea, bai eta lanak Udalaren noizbehinkako beste erabilera batzuekin bat etortzen badira gerta daitezkeen gorabeherak saihestea ere.

Gainera, beharrezkotzat jotzen bada, esleipendunak lizitazio-fasean aurkeztutako kontrol- eta erregulazio-proposamena zehaztu edo doituko da.

6.2. DOKUMENTAZIOA

Kontratu honetan egindako lanen laburpena jasotzen duen memoria bat aurkeztu beharko da instalatutako aparailuen deskribapenarekin eta programatutako funtzionalitateen azalpenarekin, gaitutako instalatzaile batek sinatuta.

Era berean, eraikinaren ziurtagiri energetikoaren hobekuntzari begira, egindako lanek energetikoki eraikinean eragiten duten hobekuntzaren kalkulatu eta azaltzen duen eranskin bat ere gehitu beharko zaio memoriari.

Azkenik, obra hau Energiaren Euskal Erkundearen (EEE) diru laguntza lerroarekin finantziatzeko eskaera egina dago, esleipendunari dagozkion diru laguntzaren zuriketarako aurkeztu beharrezko dokumentazioa prestatu beharko du.

6.CONDICIONES ADICIONEALES CONTRATO

Sin coste alguno distinto al presupuestado, será necesario realizar las siguientes tareas complementarias:

6.1. PROGRAMACIÓN DE TRABAJOS

El adjudicatario deberá presentar una programación previa al inicio. Dicha programación deberá incluir una serie de fases con previsión de plazos para cada una de ellas. Además de la duración de las fases, se deberán especificar las fechas concretas con las que se vinculan a lo largo del planeamiento. Dado que las obras afectan a la empresa Tolargi SL, la coordinación de los trabajos a realizar en la zona deberá ser consensuada previamente con la misma. Esta programación deberá contar con el visto bueno de los servicios técnicos municipales antes del inicio de las obras.

El objetivo de esta programación es minimizar las molestias que estos trabajos ocasionarán en la prestación del servicio a la ciudadanía y en la ejecución de las actividades municipales, así como evitar las incidencias que puedan producirse en el caso de que los trabajos coincidan con otros usos ocasionales del Ayuntamiento.

Además, si se considera necesario, se concretará o ajustará la propuesta de control y regulación presentada por el adjudicatario en la fase de licitación.

6.2. DOCUMENTACION

En este contrato se deberá presentar una memoria resumen de los trabajos realizados con la descripción de los aparatos instalados y de las funcionalidades programadas, firmada por un instalador habilitado.

Asimismo, de cara a la mejora de la certificación energética del edificio, deberá añadirse a la memoria un anexo en el que se calcule y explique la mejora energética del edificio derivada de las obras realizadas.

Por último, se ha solicitado la financiación de esta obra con la línea de subvención del Ente Vasco de la Energía (EVE), debiendo aportar la documentación necesaria para la justificación de la subvención correspondiente al adjudicatario.

ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba377823f1

7. BERME EPEA

Lizitatzaileak gutxienez hamabi (12) hilabeteko berme orokorra eskaini beharko du proiektuko obra unitate guztientzako eta esleipendunak bere gain hartuko ditu berme epea agortu arte egin beharreko ordezkatze guztiak. Halaber, galdaren eta bero-ponpen elementuen gutxieneko berme orokorra hiru (3) urtekoa izango da.

Kontratuaren berme epean zehar esleipenduna behartuta dago kaltetutako osagaiak nahiz hornitzaileari edo fabrikatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoien ondorioz akastunak diren osagaiak konpontzera, eta hori aski ez balitz, hornitutako materiala aldatzera.

Ordezkatu beharreko elementua ordezkatuko da Tolosako Udalak intzidentziaren berri eman eta 5 egun balioduneko epean. Intzidentziaren berri kontratuaren arduradunak edo zerbitzu publikoetako arduradunak emango du, posta elektroniko bidez

8. LANAK EGITEKO EPEA

Instalazioa kontratuaren epea agortu baino lehen jarri beharko da martxan. Epe horren barruan egin beharko dira baldintza agiri honetan adierazitako lan guztiak.

Sorkuntza termikoari dagokion obra zatiak amaituta egon beharko du 2026ko martxoaren 30a aurretik, diru laguntzen zuriketa egin ahal izateko.

Transformazio zentroaren dagozkien lanak bisoi europarraren ugalketa-aldi kritikotik kanpo egingo dira, martxoaren 15etik uztailaren 31ra bitartetik kanpo.

9. AURREKONTUA

Lanen aurrekontuari buruz:

- Beharrezkoa izanez gero, espazioak prestatzeko lanak eta horiek berriz ere lehen zeuden moduan uztekoak esleipendunak egingo ditu, udal-langileek gainbegiratuta, kostu gehigarririk gabe.
- Lanen ondorioz egin beharrezko garbiketak esleipendunak egingo ditu, kostu gehigarririk gabe
- Igeltsaritza lan osagarriak prezioaren barne

7. PLAZO DE GARANTIA

El licitador deberá ofrecer una garantía global de, al menos, doce (12) meses para todas las unidades de obra del proyecto, asumiendo el adjudicatario todas las sustituciones necesarias hasta el vencimiento del plazo de garantía. Asimismo, la garantía global mínima de los elementos de las calderas y de las bombas de calor será de tres (3) años.

Durante el plazo de garantía del contrato el adjudicatario estará obligado a reparar los componentes dañados o defectuosos por causas imputables al proveedor o fabricante, así como a modificar, si necesario, el material suministrado.

El elemento a sustituir será sustituido en el plazo de 5 días hábiles desde que el Ayuntamiento de Tolosa comunique la incidencia. La incidencia será comunicada por el responsable del contrato o el responsable de los servicios públicos mediante correo electrónico.

8. PLAZO DE EJECUCION

La instalación deberá ponerse en marcha antes de que expire el plazo del contrato. Dentro de este plazo deberán realizarse todos los trabajos indicados en el presente pliego.

La parte correspondiente a la generación térmica deberá estar finalizada antes del 30 de marzo de 2026, para poder realizar la liquidación de la ayuda.

La obra correspondiente al nuevo centro de transformación se realizará fuera del periodo crítico para la reproducción del visón europeo, comprendido entre el 15 de marzo y el 31 de julio.

9. PRESUPUESTO

Sobre el presupuesto de los trabajos:

- En caso necesario, los trabajos de preparación de los espacios y de reposición de los mismos, serán realizados por el adjudicatario, bajo la supervisión del personal municipal, sin coste adicional.
- Las limpiezas necesarias como consecuencia de las obras serán realizadas por el adjudicatario sin coste adicional
- Los trabajos auxiliares de albañilería están

ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba37823f1

daude.

- Exekuzio proiektuan aurrekontu xehetua dago; elementu bakoitzaren kantitateak, eskulan orduak adierazten dira bertan.

Aurrekontuan adierazitako prezioetan sartzen dira gastu orokor guztiak, garraio gastuak, zamalanenak, instalazio lanetarako bitarteko lagungarri edo jasogailuenak, proba eta entseguenak, zeharkako kostuak, dokumentazio teknikoa osatzekoak, hondakinen kudeaketa, osasun eta segurtasuna, etab.

incluidos en el precio.

- El proyecto de ejecución contiene un presupuesto detallado en el que se indican las cantidades de cada elemento, las horas de mano de obra.

Los precios indicados en presupuesto incluyen todos los gastos generales, gastos de transporte, carga y descarga, medios auxiliares o de elevación para la instalación, pruebas y ensayos, costes indirectos, elaboración de documentación técnica, gestión de residuos, salud y seguridad, etc.

Nork Sinatua / Firmado por: AMAIUR MIKEO ZABALO - 44567497Y
2025/07/23 13:14:23

EKS | CSV: ESKU0968c1ec-d76e-4993-a71a-cfba377823f1

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110